

2022 MEMORIA



AURKIBIDEA

NORTZUK GARA	3
Zeregina	3
Ikuspegia	3
Gobernu-organoak	3
Pertsonen zifra nagusiak	3

1 2021–2024 KO PLAN ESTRATEGIKOA	4
1. ARDATZA - Sinesmenak eraldatu. Aldaketa kulturala - Eredu etikoa	5
• Proiektu etikoa	5
2. ARDATZA - Senideekin eta pertsonekin zerbitzuak eraldatu	6
• Biziki	6
• Zentzua duten bizitza proiektuak	7
3. ARDATZA - Eraldaketa soziala eta Ingurunea	7
• Eragin politikoko taldea	7
• Gure mundua eraldatzeko 17 helburu	8
• Boluntarioritza aldaketa-eragile gisa	9
4. ARDATZA - Eredua kalitatez aldatu	10
• Irisgarritasun kognitiboa	10
• Kalitatearekin dugun konpromisoa	10
• Emakumeen taldea	10

2 BABES—EREMUAK	11
Babesaren neurriak	11
Babesa familiei	12
Psikologia	12
Eguneko arreta	13
Okupazionala	14
Etxebizitza	15
CIVIS	16
Aisialdia eta gizartean parte hartzea	17

3 ALIAN TZAK	18
----------------------------------	----

NORTZUK GARA

DUINTASUNA ERAIKITZEN

● Zeregina:


“Konpromezu etiko batetik, laguntza eta aukerak emanda, adimen urritasuna duen pertsona bakoitzak eta haren familiak bizi-kalitateko euren proiektua garatzeko aukera izan dezaten laguntzea, bidezkoagoa eta solidarioagoa den gizarte batean eskubide osoz herritar gisa gizarteratzea sustatuta”.



● Ikuspegia:

Pertsona bakoitzak eta bere familiak zentzuzko bizitza, gizartean oso-osorik murgilduta, lortze aldera aukerak sortzen dituen eta gizarte etikoari balioa ematen dion erakunde bat gara.

● Gobernu-organoak



● Pertsonen zifra nagusiak

297
Pertsonak eta haien familiak

79
boluntario

138
profesional

417
bazkide


+140
laguntzaile

1 2021-2024 KO PLAN ESTRATEGIKOA

2022
MEMORIA

2022an Plan Estrategikoa hedatzen jarraitzen dugu, GAUDEko interes-taldeetako 70 pertsonak baino gehiagok egindako hausnarketa partekatutik abiatuta diseinatu ondoren.

Plana 4 ardatzen inguruan egituratuta dago, eta honako helburu eta proiektu hauek jasotzen ditu.



1 ardatza *Sinesmenak Eraldatuz, Kultura Aldaketa - Eredu Etikoa*



Gure eredu etikoak bultzatuta, erakundearen kultura-eraldaketan aurrerapausoak ematea.

- Eredu etikoa ezartzeko aurrerapausoak ematea.
- Eredu etikoa gizarteratzea.


2 ardatza *Familia Eta Pertsonekin Zerbitzuak Eraldatuz*



Gure ereduarekiko koherentzia, pertsonarengan eta familian oinarritutako plangintza-prozedurak, -tresnak eta -metodologia finkatzen aurrera egitea, bai eta gure laguntza eta aukeren eskaintzan ere lehenetsunez erantzuteko.

- Pertsonen, senitartekoen eta zerbitzuen arteko lankidetzaren harremana indartzea.
- Pertsonen ahalduzko laguntza.
- Ingurunean partaidetza-aukerak bultzatzea.
- POP inplementatzeko aurrerapausoak ematea.

3 ardatza *Ingurunea Eraldatzen*



Adimen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien senitartekoen benetako gizarteratze-, partaidetza- eta berdintasun-aukerak sortzen dituen ingurunerantz aurrerapausoak ematea. Bere eskubide guztiak beteko dituela bermatuko duen ingurune bat, gizarte zuzenago eta txukunago bat eraikitzen lagunduz, gure Erakundeak kulturaren, ekonomiaren eta gizarteraren garapenera egiten dion ekarpena aitortu eta balioetsiko duena.

- Boluntarioaren zeregina definitzea.
- Desgaitasunari buruzko politika publikoetan eragitea.
- Gizarte inklusiboagoa lortzen laguntzea.
- Gizarte-eraldaketaren aldeko konpromisoa hartzea.

4 ardatza *Eredua Kalitatez Eraldatuz*



Erakundearen sendotasuna, familien, pertsonen eta profesionalen partaidetza eta elkartearreko kidetasuna hobetzea eta kudeaketa arduratsuen sisteman aurrerapausoak ematea.

- Intereseko talde guztien elkarrekin partaidetza indartzea.
- Lanbide-garapenera aurrerapausoak ematea.
- Etengabeko hobekuntzaren kultura finkatzea.
- Komunikazioa hobetzea.
- Genero-berdintasunerako neurriak bultzatzea.
- Berrikuntza-prozesua sistematizatzea.



1. ARDATZA

Sinesmenak eraldatu.
Aldaketa kulturala - Eredu etikoa

2022
MEMORIA


Proiektu etikoa

Hausnarketa etikoko- taldeen bitartez, duintasuna sortzen duten antolamendu- eta harreman-inguruneak eraikitzen laguntzen eta oztopatzen duten gizarte-, antolakuntza- eta pertsona-mailako mekanismoez jabetzen gara.

Zer egiten dugu?

- Adimen-urritasuna duten pertsonen babesa emateko esparrua aztertzea.
- Laguntza-pertsonen adimen-urritasunaren egoerari buruz dituzten sinesmenak eraldatzea, pertsona horien duintasuna senti dezaten.
- Urrietasun intelektuala duten pertsonen laguntzeko aukera berriak pentsatzeko gaitasuna garatzea, pertsona horien nortasun duina izate aldera.

Taldeek urte hauetan izan duten bilakaera honako hau izan da:



*2022an, pandemiaren ondoriozko baldintzek ahalbidetu zutenean, bi taldeak bakar batean batu ziren.



Iturria: "Geure burua eraldatuz; nire bidaiaren egunerokoa". Egilea: GAUDE



2. ARDATZA

Senideekin eta pertsonekin zerbitzuak eraldatu

2022
MEMORIA

Biziki



Zer egiten dugu?

BIZIKIk bizitzaz gozaten laguntzen die adimen-urritasuna duten 50 urtetik gorako pertsoneri eta haien familiei, zahartze aktibo eta osasungarri baten ikuspegitik.

- Osasuna eta doikuntza fisikoa
- Funtzionamendu kognitiboa mantentzea
- Afektu positiboa
- Gizartearen parte-hartzea eta inplikazioa
- Adineko pertsoneri erakundeetan laguntzea



- Giza garapena
- Adiskidetasun-lotura esanguratsuak mantentzea
- Erretiro-plana planifikatzea

Nola egiten dugu?

2022KO LANTEGIAK/JARDUERAK	TOKIA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
Informatika	HHE-ERANDIO	1	0	1
Memoria	GURUTZE GORRIA	1	0	1
Boluntariotza animaliekin	ASKATA ZENTROA	4	1	5
Bizitza eta zahartze osasungarria	NAGUSI PINUETA	4	3	7
Estimulazio kognitiboa	GAUDE	6	3	9

ERRETIRO-PLANA EGITEA FAMILIAN OINARRITUTAKO IKUSPEGITIK (FOI)



PROZESU NEURO-KOGNITIBOAK BABESTEIA INGURUNE NATURALEAN



GIZARTE HARREMAN ESANGURATSUAK



“BIZIKIk niretzako denbora izateko eta txakurrekin naturan paseatzeko ilusioarekin esnatzen laguntzen dit”.

Jesús Pablo de la Peña



2. ARDATZA

Senideekin eta pertsonekin zerbitzuak eraldatu

Hobekuntza-taldea: Zentzua duten Bizitza Proiektuak

Familia ardatz duen eta pertsonarengan arreta jarriko duen antolakunde baterantz aurrera egiteko, GAUDE-ko hainbat eragilek (pertsonek, familiek eta profesionalak) parte hartu duten talde honek bi proiektu abian jarri ditu:

1 PLAN DE VIDA

GAUDEn parte hartzen duten pertsonek eta haien familiek beraiek aukeratutako bizitza-proiektu batez gozatzeko aukera izan dezaten laguntzen du, beren lehentasunetan, balioetan eta nahietan oinarrituta, Pertsonan Oinarritutako Plangintzaren (POP) metodologia ezarriz.

- “Zentzua duten Bizitza Planak” proiektua zabaltzea
- Bilera proiektuan interesa duten pertsona eta senide guztiekin.
- Beren Bizitza Plana diseinatu nahi duten familia eta pertsonekin poltsa bat sortzea.

Zerbitzuen jarduerak pertsona bakoitzaren interesetara ahalik eta gehien egokitzeko moduan antolatzea ahalbidetzen duen tresna.

- 2022an Etxebizitza Zerbitzuan eta Monte Ikea Egunekeo Zentroan ezartzen jarraitu da, eta bertan Elkartearen logopedak parte hartu du materialak egokitzeko.

2

ERDIAN GAUDE

Honako hauek osatzen dute taldea:
1 pertsona urritasunarekin
10 ahaide
3 profesional



3. ARDATZA

Eraldaketa soziala eta Inzurunea

Eragin politikoko taldea

Urritasun intelektuala duten pertsonei eta haien senideei dagokionez, politika publikoen jarreretan eta erabakietan eta haien baliabideen esleipenean eragin nahi du, gehien kezkatzen gaituzten alderdietan. Aurten, bereziki honako hauek nabarmendu dira:

Pertsona bakoitzak bere inguruneari eusteko duen eskubidea, baita egonaldi iraunkorreko egoitzako plaza publiko batera iristen denean ere.

“Ohea jartzen duzun lekuan, bizitza jartzen duzu” lelopean taldea Getxon ordezkariak izan diren alderdi politikoekin bildu zen, haien kezka partekatzeko eta urritasuna duen pertsona bakoitzak beti bizi izan diren eta bertan parte hartzen dutela sentitzen duten ingurune esanguratsu batean bizitzeko duen eskubidea bete dadin laguntzearen garrantziaz sentsibilizatzeko.



Geure mundua eraldatzeko 17 helburu

GAUDEk bat egiten du helburu horiekin *“Nik ere posible egiten dut aldaketa”* ekimenaren bidez. Proiektu honen bidez, adimen-urritasuna duten pertsonak eta haien familiek zeregin aktiboa hartzen dute, gizartea eraldatzeko eragile bihurtuz eta gizarte bidezkoago eta solidarioago bat sortzen lagunduz.



2022an, 255 **borondatezko** partaidetza egin dira, aldaketaren aldeko apustua egiten duten 17 **erakundetan**.

Hondartzak garbitzea, baso-berritzea, elikagaiak biltzea, merkatu solidarioak, animaliak babestea...



Ekintza puntualetatik haratago inplikatu nahi diren eta beste erakunde batzuetan boluntarioria egonkorra egitea erabakitzen duten adimen-urritasuna duten pertsonari laguntza ematen diegu.

“Eraldatuz” talde sustatzaileko kide gara. Getxoko aldaketa sozialaren aldeko pertsona eta erakundeen sarea da, komunitatean ekintzak eta topaguneak bultzatzen eta errazten dituen.



INGURUNEAREN SENTSIBILIZAZIOA

Urritasuna duten **15 pertsonak** **21 sentsibilizazio-hitzaldi** eman dituzte prestakuntza-zentroetan.



“2019tik boluntarioa naiz Sortarazin. Ostiralero joaten naiz.

Sortarazin telefonoa hartu, elikagaiak banatu eta apalak betetzen ditut. Oso atseginak dira nirekin eta asko maite naute.

Gainera, Eraldatuz-eko lantaldeetan parte hartzen dut, jarduerak antolatzen eta horietan parte hartzen”.

Nekane García



3. ARDATZA

*Eraldaketa soziala
eta Ingurunea*

Boluntariotza aldaketa-eragile gisa

2022an 79 boluntario izan ditugu eta honako hauek egiten lagundu digute:



Boluntarioek honako hauetan parte hartu dute:

AISIALDI KLUBA

KIROLA

OPORRAK

BIZIKI

ANTZERKIA ZINEMA
 NEURRIRA EGINDAKO DANTZA
 AISIA KONTZERTUAK
 FUTBOLA IGERIKETA
 MENDIA MENDI-IBILIAK
 YOGA



EGUNEKO IRTEERAK
 "RINCÓN DE LA BARAJA" BIDAIAK
 BOLUNTARIOTZA
 INFORMATIKA
 IRAKURKETA ERRAZEKO KLUBA
 ELIKAGAIEN BILKETA
 HONDARTZAK GARBITZEA



“GAUDEn izan dudana esperientzia beti izan da oso positiboa. Haien aldetik jasotzen dudana maitasuna eta konfiantza azpimarratuko nituzke. GAUDEn izan dudana esperientzia definitzeko erabiliko nukeen hitza ZORIONA da”.

Oscar Padilla

BOLUNTARIO AKTIBOA GAUDEN HAINBAT AISIALDI-JARDUERETAN

Zuzendaritza
Batzordeko kide gara



BForoaren parte gara,
Bizkaia Gara-koa (Bolunta)





4. ARDATZA


Eredua kalitatez aldatu

2022
MEMORIA

Irisgarritasun kognitiboa

2022an, irisgarritasun kognitiboan aurrera egiten jarraitzen dugu.

Web-orria Irakurketa Errazera egokitzea



Profesionalentzako irisgarritasun kognitiboari buruzko prestakuntzak:

- Testuak Irakurketa Errazean egitea - Plena Inclusión Madrid.
- UNEDeko Aditu profesionalaren ikastaroa: "Irisgarritasun kognitiboa. Irakurketa erraza eta beste baliabide batzuk", Plena Inclusión-ekin lankidetzan.



Kalitatearekin dugun konpromisoa

Etengabeko hobekuntzarekin konpromisoa dugu. Kalitatezko bi eredu osagarriekin konpromisoa dugu, kudeaketa emaitza pertsonal eta familiar esanguratsuetarantz sistematizatzeraz bideratzen gaituztenak.



“bINKLUSIon”



Emakumeen taldea

Taldeari berriro ekin diogu berdintasuneko eta emakume-taldearen dinamizazioa bi adituren laguntzarekin.


Gaur egun, taldea **16 emakumek** osatzen dute, eta aldi-aldian biltzen dira kezka partekatzeko eta interesatzen zaizkien gaiei buruzko prestakuntza jasotzeko.



2 BABES-EREMUAK

Babesaren neurriak

	PLAZAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Eguneko arreta			
Andra Mari EZ	15	7	8
Barrika EZ	22	10	12
Monte Ikea EZ	13	9	4
Okupazionala			
Donibane ZO	68	42	26
Mendiondo ZO	18	-	18
Etxebizitzak			
Belauste etxebizitza	10	-	10
Gobelas etxebizitza	8	-	8
Santa Ana etxebizitza	8	8	-
CIVIS			
Lan-prestakuntza	60	30	30
Lan-orientazioa	48	20	28
Enplegua babesarekin	17	9	8
Aisia	176	70	106



Zer egiten dugu?

Familia bakoitzari laguntzen diogu eta aukerak ematen dizkiogu, bizi-kalitatea eta kide bakoitzaren ongizatea hobetze aldera. Indarguneak garatzen laguntzen diegu eta, horrela, beren bizitzaren gaineko gaitasun- eta kontrol-sentimendua areagotzen dute.

Zer nabarmentzen dugu?

INFORMAZIOA:



- Prestazioak
- Etorkizuneko aholkularitza
- Inguruneko baliabideak
- Beste batzuk

LAGUNTZA:

- Izapideak
- Mendekotasunaren balorazioa
- Aldi baterako egonaldien eskaerak
- Egonaldi iraunkorren eskaerak
- Eskaerak Egoitzak
- Beste batzuk

KOORDINAZIOA:



- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
- Berritzeguneak
- Osasun Zentroak
- Beste batzuk

BABES EMOZIONALA

34 ahaide

ZUAZO ETXEA

63 egonaldi
210 egun irekita

Zuazo Etxea epe laburreko aldi baterako egonaldi-erako etxebizitza da, familiaren egoera zehatz bati laguntzeko (oporak, atsedena, larrialdi medikoak, etab.)

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Gordoniz abokatu-
langela
8 ahaide

Bi urtez elkartu gabe egon ondoren, 140 senidetik gora elkartu gara berriro Gabonetako bazkarian



Zer egiten dugu?

Pertsonari eta ahaideei bizitzako etapa eta egoera desberdinetan laguntza eta babesa eskaintzen diegu. Erakundearen beste baliabide bat bezala jarduten du, laguntza-sarea osatzen duten profesionalekin koordinatuta, helburu pertsonalak lortzeko banakako plangintzak babesten dituzten irizpide bateratuekin. Halaber, eredu etikoaren arabera oinarritako eskubideak eta bizitza duina errespetatzea sustatzen du.

Zer nabarmentzen dugu?

Familia bazkide berrien harrera

Pertsona eta bere familia orientatzea, bere nahi eta lehentasunetatik abiatuta

Pertsonari eta haren familiari laguntzea eta babes psikologikoa ematea

Txosten psikologikoak

Koordinazioa Osakidetzako Osasun Mentaleko sarearekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta beste erakunde batzuekin

GAUDEren beste zerbitzu batzuetarako babesa

Zer egiten dugu?

Komunitatean erabat parte hartzeko eta modu globalean garatzeko aukerak sorrarazten lagundu eta babesten dugu. Bereziki nabarmentzen ditugu parte hartzearen, gizarteratzearen eta eskubideen esparruak. Pertsonak haien bizitzak kontrolatzen dituztela sentitzea sustatzen duten gaitasunak garatzea bultzatzen dugu.

Zer nabarmentzen dugu?

BABES AKTIBOA

Metodologia honi esker, hasierako pilotajearen parte hartu zuten pertsonen bizi-kalitatea hobetu dugu hainbat alderdi garrantzitsuetan, hala nola autonomian eta erabakiak hartzean, eta 2023an garatzen jarraituko dugu.

TERAPIA TXAKURREKIN

Gondra Barandiaran Fundazioak emandako dirulaguntzari esker, Lauanka Elkartearekin eta Terapias Perrunas enpresarekin batera, “laguntza behar handia duten adimen urritasuna duten pertsonentzako terapia animaliekin” proiektua garatu ahal izan dugu.

AHAIDEEN BATZORDEA

Hiru hilean behin bilerak egiten dira eguneko zentroetara joaten diren pertsonen senideek osatutako batzordearekin. Bilera horietan, senitartekoei zuzenean edo zeharka eragiten dieten gai guztiak jorratzen dira. Aurten, arreta berezia jarriko da garraioari eta azpiegiturei buruzko arazoaren konponketan.

ERABAKIAK HARTZEN

Adimen urritasuna duten pertsonen zentroetako jardueren eta bizitzaren antolaketan duten parte-hartzea hobekuntza eta garapena.



Barrikara etortzea gustatzen zait jendea jatorra delako, furgonetan zerbait hartzera ateratzen garelako eta igerilekuan asko disfrutatzen dudalako”.

Eneko Aristegi

Zer egiten dugu?

Pertsonaren garapen pertsonalean eta gizarteratzean laguntzen dugu.

Horretarako, lanerako gaikuntza-programak eta beharrezko laguntzak eskaintzen ditugu, pertsonak bere trebetasunak hobetzeko, autonomia eta bizi-kalitate handiagoa izateko.

Zer nabarmentzen dugu?

Gure helburua pertsona bakoitzaren gaitasunekin eta lehentasunekin bat datozen ikaskuntza funtzionalak sustatzea da, laguntzak garapena, hezkuntza, interesa eta ongizatea sustatzea helburu duten baliabide eta estrategia gisa ulertuta, bakoitzaren eta gizartearen funtzionamendua hobetuz.

Proposatutako helburua betetzeko, jarduera eta programa hauek jarri ditugu abian:

KULTURA INGURUNEA YOGA ERLAXAZIOA IRTEERAK JAIAK ETA EKITALDIAK TERAPIA ANIMALIEKIN BERDINTASUN ARLOA
 HERRIGUNE. LEIOAKO UDALA SUKALDEKO TAILERRA BRIKOLAJE ETA LOREZAINZA TAILERRA INGURUMENA

EGOKI PLAN:

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren laguntzarekin eta konpromisoarekin sortu da zahartze aktiboari laguntzeko proiektu hau. Hauek dira gure helburuak:

- Zahartze osasungarriko prozesuak sortzea
- Emozio positiboak sustatzea
- Pertsonak ahalduntzea
- Pertsonen bizitzaren kontakizun positiboa lortzea
- Begirada aldatzen laguntzea

Horretarako, ekintza berriak diseinatu ditugu Donibanen eta Mendiondon parte hartzen duten pertsonen partaidetza, bizi-kalitatea eta autonomia areagotzeko.



“Donibanen hasi nintzenean arraro samarra zen, gero oso ondo. Orain oso pozik nago. Gehien gustatzen zaidana lan egitea da, ez zait gustatzen lanik ez dagoenean. Lagun asko egin ditut eta tailerreko jarduera guztietan parte hartzea gustatzen zait”.

Janire Fano



Zer egiten dugu?

Pertsonen laguntza diegu beren bizi-proiektua gara dezaten, beren nahiak eta interesak bete dituzaten, hazkunde pertsonalean lagunduko duten trebetasun funtzionalak sustatuz, komunitatean barneratutako etxe batean biziz.

Zer nabarmentzen dugu?

GURE BIZITZAREN KONTROLA

Pertsona bakoitza erdian kokatzen jarraitzen dugu, "Erdian Gaude" eta "Niri buruz" tresnen bidez, etxebizitzan aukeratutako erreferentziako pertsonarekin entzuteko espazio pertsonalizatuak sustatuz.

ETXEBIZITZA ZERBITZUAREN ERALDAKETA

Hiru familia eta zerbitzuko bederatzi profesionalen batera hausnartzeko eta lan egiteko prozesua. Pertsonen bizitzaren alderdi garrantzitsuak ezagutzeko lan egin da, bai beren etxean, bai inguruan: non eta norekin bizi etorkizunean, erretiroa...

KOMUNITATEAN PARTE HARTZEA

Gizarte-gertaera nagusietan egoten jarraitzen dugu: jaiak, erakusketak eta museoak, naturguneak...

PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA

Prestakuntza-jardunaldiak, profesionalen interes pertsonalak eta erakundearen lan-ildoak kontuan hartuta.

AHAIDEAK

Familiaren egoera pertsonalari eta etorkizunari buruzko jarraipena egitea hainbat familiari.



“Oso pozik nago Santa Anara bizitzera etorri naizelako.

Oso ondo moldatzen naiz kide eta begirale guztiekin”.

Ruth González

Zer egiten dugu?

CIVISek enplegarritasuna hobetzearekin zuzenean lotutako eskumen gehiago garatzen eta sustatzen laguntzen du, laneratzeko aukerak areagotzen lortzeko.

Zer nabarmentzen dugu?



LAGUNDUTAKO ENPLEGUKO

enpresa laguntzaileak

PRAKTIKETAKO

enpresa laguntzaileak



“Oposizioak ateratzea oso prozesu luzea izan da eta urduritasun asko pasatu ditut.

Lana lortzen, independentea izaten eta bakarrik bizi ahal izaten lagundu dit.

Gainera, lan honi esker, askatasun ekonomikoa dut erosteko, kontzertuetara joateko, gimnasiara joateko...”

Maialen Arruti

MAIALEN BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO MANTENIMENDU POSTUAN.

Zer egiten dugu?

Pertsonei laguntza ematen diegu aisialdiaz goza dezaten, haien parte hartze eta autonomia sustatuz, pertsonari orientazio emateko eta gizarteratzeko printzipioek gidatuta, banakako aisialdiaz zein aisialdi partekatuz gozatzeko eskubidea balia dezaten.

Zer nabarmentzen dugu?

ADIMEN URRITASUNA DUTEN PERTSONEN AISIALDI BATZORDEA

10 pertsona

JOLASAK

- Rincón de la Baraja: 6
- Asteburuko kluba: 110 pertsona
- Aste Santuko kluba
- Uztaila eta abuztuko kluba Oporretako txandak: 88 pertsona

SOZIOKULTURALA

- Pintura tailerra: 22
- Dantza: 15
- Abesbatza: 11
- Gorputz-adierazpena: 15
- Musidisk: 6
- Irakurketa Errazeko Kluba: 21

OPORRAK

88 pertsona

NEURRIRA EGINDAKO AISIALDI PROGRAMA

2022an, pertsonei laguntzen jarraitu dugu beren aisialdia kudea dezaten, urtebetetze-ospakizunak, asteburuetako irteerak, atzerrirako bidaiak, kontzertuak eta abar.

Urtean zehar, guztira
90 partaidetza izan dira.

KIROL ARLOA

- Areto-futbola: 26
- Golfa: 6
- Igeriketa: 44
- Mendi-ibiliak: 15
- Mendi: 3
- Gimnasia: 11
- Yoga: 11



KIROL TOPAKETAK ETA TXAPELKETAK

- Ausartan Race: 5
- Basket Oribeltza: 1
- Bilbo Mendi Trail: 2
- Logroño areto-futbola: 16
- Jaiki Surf Eskola: 9
- Legazpi Kirol: 24
- FVDAko areto-futboleko liga 19
- FDABko igeriketa liga: 17
- FVDAko Cadiz igeriketa: 2
- Ordizia igeriketa: 12
- Getxo Show patinaje: 1
- Skidenok patinaje: 1
- Ur Irekiak Galea: 7



“Parisera bidaiatzeak emandako esperientzia asko gustatu zait. Gogo handia nuen bidaiak egiteko eta nire ametsa errealitate bihurtzeko (Disney Parkera joatea).

Bidaia hau aprobetxatu dut nire frantsesa praktikatu ahal izateko.

Oso eskertuta nago aisialdiko zerbitzuak lagundu didalako eta bidaiak egiteko aukera eman didalako”.

Fernando Abajas

3 ALIANTZAK

140 erakunde kolaboratzaile baino gehiagoko sarea daukagu, eta horien artean honako hauek nabarmentzen ditugu:





DUINTASUNA



Amaia Etorbidea, zk.2, 2G
48940 Leioa. Bizkaia
Tel.: 94 463 24 55
comunicacion@gaude.eus
www.gaude.eus

